

BALORAZIOA

Interesa: Turistikoa eta didaktikoa.



Kategoria: Eskualde mailakoa.

Kontserbazioa: Ona.

*Antzeko beste gune batzuk: Ez dago
bestarik Bizkaian.*

*Irispidea: Urduñako portua igo eta La
Virgen de la Peñako bidetik joan.*

Tartanga auzotik ere igo daiteke.



VALORACION

Interés: Turístico y didáctico.

Categoría: Regional.

Conservación: Buena.

Otros puntos semejantes: No existe en
Bizkaia otra formación similar.

Accesos: Subiendo el puerto de Orduña,
dirigirse a la Virgen de la Peña. También
puede ascenderse desde el barrio de
Tertanga.




Fraidearen Tontorra harrizko piramide bat da, maldako ezpondan, Urduñako erlaitzetik metro gutxitara, kokatuta dagoena. Bere izena, erosioak ezarri dion formatik dator, izan ere fraide-busto bat bait dirudi argi eta garbi. Bai tontorraren eta bai goi-plataformaren osagaiak Kretazikoko (Koniaciarreko) kararri eta kalkarenitak dira, potentzia handiko geruzetan estratifikatuak, beheko malda eta ezpondaren oina, berriz, adin zaharragoko (Turoniarreko) margaz eta kararri margotsuz daude eratu-ta.

Fraidearen tontorra erosioak mendi-lepoan azaldu duen ekintza diferentzialez sortu da. Harri-pakete bereko zona gogorrenak hobeto jasaten dute eguraldiaren erasoak beste zonek baino, eta horrela irtenuneak eratzen dira. Kasu honetan, lepoa atzeraka joan da eta zona gogorrena isolatuta gelditu da ezproi eran. Prozesu geologiko honek aurrera segituko balu, Urduñako lepoa guztiz desagertu ondoren Tontor hau testigu-pentoka bihurtuko litzateke, zona harek aspaldi izan zuen erliebearen lekuko.

Urduñako goi-plataformari teknikoki cuesta deitzen zaio nazioarteko hizkuntza geomorfologikoan. Formazio-mota hau bera baino material bigunagoen gainean ezarrita dagoen geruza laun batek eratzen du. Azpiko hauek erosioak erasotzen ditu eta gaineko geruzaren amilketa gertatzen da erliebea geroz eta atzerago eramanez.

«CUESTA»erako ERLIEBEAREN
ESKEMA, URDUÑAKO
DIAPIROAREN SW-ko ERTZARI
DAGOKIONA



ESQUEMA DEL RELIEVE EN
«CUESTA» DEL BORDE SW DEL
DIAPIRO DE ORDUÑA

El Pico del Fraile se encuentra en la parte superior de Orduña, separado del farallón que domina el valle. Es una pirámide rocosa que debe su nombre a la forma que le ha conferido la erosión, recordando con mucha claridad al busto de un fraile.

Tanto el pico como la plataforma superior están tallados sobre calizas y calcarenitas estratificadas en capas potentes, de edad Cretácica (Coniaciese). La ladera inferior y base del talud está formado por margas y calizas margosas de edad más antigua (Turonense).

La formación del Pico del Fraile se debe a la acción diferente de la erosión sobre el collado. Las zonas de mayor dureza dentro del mismo paquete rocoso soportan mejor la erosión que el resto de la roca, creándose resaltes. En este caso, el retroceso del collado ha permitido que la zona más resistente quede aislada, formando un espolón. Si este proceso geológico se mantiene, el pico está destinado a permanecer como un cerro-testigo el día que haya desaparecido totalmente el collado de Orduña, sirviendo de indicador del antiguo relieve de la zona.

En cuanto a la plataforma superior de Orduña, puede decirse que es lo que se denomina «cuesta». Esta formación consiste en una capa plana, apoyada sobre materiales menos resistentes. Al ser éstos atacados por la erosión, provocan el derrumbamiento de la capa posterior, originando un retroceso del relieve.